



Azken urteotako inbertsio handiena Udal azpiegitura berria eraikitzen bideratu du Urrietako Udalak / **2-3**

18:00 MELENAS

19:05 THE HANGING STARS

20:10 GAILU

22:00 EL DROGAS

23:35 PARLOR SNAKES

00:50 THE LIMIÑANAS

ANDOAIN

XIV. ANDOAINO ROCK JAIALDIA

hasiera 18:00 | **EKAINAK 11** | larunbata | ama


NAFARROA PLAZA

APERITIV

12:00 RAMADA INN ZUMEA PLAZA

13:00 NATURAL PROJECT JUANITA ALKAIN PLAZA

14:00 JOHN DEALER & THE COCONUTS GOIKO PLAZA




















Urnietako kiroldegiko kantxa. AIURRI

Kiroldegi berria, erabiltzen hasteko prest

Askotariko berrikuntzekin dator Urnietako kiroldegia. Bi urteko obren ondoren ipini da martxan urnietarrentzat, baita Buruntzaldeako kirol-hitzarmenean parte hartzen duten herriei begira ere: Andoain, Lasarte-Oria eta Usurbil

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Bi urteko eraikuntza-lanen ostean, ekainaren 8an ireki zituen ateak Urnietako kiroldegia. “Erabiltzaileen beharretara egokitua” dagoela iragarri du Urnietako Udalak, “bai jarduera banaka egiten dutenei, eta baita kirol federatua edo eskola-kirola egiten dutenei begira ere”. Orain arte-

ko ordutegi bera izango du: astelehenetik ostiralera, 08:30etatik 22:00etara, eta asteburu eta jai egunetan, 09:00etatik 21:00etara. Hori horrela, Buruntzaldeko kirol-hitzarmena duten herrietako kirolzaleek instalakuntzaz gozatzeko aukera izango dute aurrerantzean: Urnietaz aparte, Lasarte-Oria, Andoainek eta

Usurbilek. Erabileraren araberrako antolamendua dauka erai-kinak, eta, eskailerez gain, igo-gailu batek solairu guztiak elkarrekin konektatzen ditu, Udalararen esanetan, “erabiltzaileen irisgarritasuna bermatzeko”. Sarrera igerilekuko solariumaren ondoan kokatuta dago. Solairu horretan bertan daude ere, bes-

teak beste, muskulazio- zein kardio-gelak, spinning, rokodromoa eta arte martzialak egiteko nahiz erabileraren anitzeko aretoak.

Halaber, lehen solairuari dagokionez, taldeka egiteko instalakuntzak daude, alegia: eskubaloiko pista zaharraz gain, beste kirol-pista bat ere badauka kiroldegia. Bestalde, teniseko pistaren alboan, berrikuntza gisa, padelean aritzeko bi pista jarri dituzte. Azken horietan, ordaindu egin beharko da txanda hartzeko, baina bazkideek doan erabiltzeko aukera izango dute, baldin eta une horretan bertan erreserbarik eginda ez badago.

Bukatzeko, zaleei begirako gunea izango da bigarren solairua, bertan baitaude kirol anitzeko pistetako eta futbol zelaiko harmailetarako sarbideak. Solairuen arteko komunikazio-sistemak kiroldegiko erabiltzaileak eta ikusleak ez gurutzatzea ahalbidetuko duela nabarmendu du Udalak.

Kulturako eta aisialdirako gunea Kirolari ez ezik, musikaren, aisiaren eta kulturaren arloan lan egiten duten elkarte eta pertsonen ere zerbitzua emango die kirol-

degi berriak. Horrela, esaterako, herriko musika-taldeek beren entseguak egin ahal izateko boxak kokatu dira, baita Urnietako eragileei begirako entsegu-aretoa ipini ere. GazteInfok Gazte Informazio Gunearen egoitza berria bertan izango du aurrerantzean.

Irekiera-ekitaldian izan zen Jorge Segurado alkatea, eta proiektua gauzatzea ahalbidetu duten eragile guztiei eskerrak eman zizkien, baita herritarrei ere: “Udalak, herritarrekin batera, parte-hartze prozesu bat garatu zuen inbertsio estrategiko nagusiak aukeratzeko, eta bozkatuena kiroldegia birmoldaketa izan zen. Udalak bere gain hartu zuen agindua, eta, azkenean, gauzatu dugu”. Bide beretik, Harkaitz Millan Kultura eta Kirol diputatua ere izan zen hitzorduan eta instalazio publikoek kirola egiteko “sarbide demokratikoa” bermatzen dutela nabarmendu zuen hitza hartzean. Haren adierazpenez, berriki berreskuraturako Foru Aldundiaren Kirol Instalazioen Planaren bidez, kirol-praktika berriak egin ditzakete herritarrek, eta “irisgarritasuna eta kirol inklusiboa bermatu” da.



Makina berriak ipini dituzte muskulazio-gelan. AIURRI



Foru Aldundiko Harkaitz Millan Foru Diputatua eta Maider Lainez Andoaingo alkatea, Urnietako Udal ordezkariekin. AIURRI

Ezin ahaztu Paulo Jose Fernandez Alves behargina

Zerbitzu berriez gozatzeko aukera pozgarria izaten da herritarrentzat. Baina ezin ahaztu Urnietako kiroldegi berriaren eraikuntza-lanetan izandako gertaera iluna. XXI. mendean sartuta ere, jendeak bizia galtzen du lan jardunean. Amaierarik ez duen arazo latza da: Euskal Herrian, dozenaka behargin hiltzen baita urtero-urtero.

Kiroldegiko obran hil zen langileak Paulo Jose Fernandez Alves zuen izena. Lankideek adierazi zutenez, sortzen portugaldarra zen eta egunero-egunero etortzen zen Gasteiztik Urnietara lanera. 59 urtekoa, Astigarragako Pavimentos Tecnologicos Zarrarentzat lan egiten ari zen istripua gertatu zenean. Aipatu beharra dago Astigarragakoa

azpikontratutako enpresa zela, obran ardura Miguel Imaz enpresarena baitzen. Ezbeharra gertatu zen uanean, hormigoia botatzeko lanetan ari ziren eta kamioiaren besoetako batek ekilibrioa galdu, luma mugitu eta langilea kolpatu zuen. Sindikatuek salatu zutenez, istripua berean Paulo Jose Fernandezzen alboan ziren bi langileak arriskuan izan ziren.

Udal kiroldegi berriko ordutegia



Rokodromoa, gune berrietakoa. AIURRI

Kiroldegi berriaren ordutegia Kiroldegiak garai batean zuen ordutegiari eutsiko dio, berrabiatze honetan. Honako haxe da ordutegia: astelehenetik ostiralera, 08:30etatik 22:00etara, eta asteburu eta jai egunetan, 09:00etatik 21:00etara.



Harrera gunea Urnietako Udal kiroldegi berrian. AIURRI

Bazkide egiteko epea zabalik Dagoeneko irekita dago bazkide egiteko epea. Modu telematikoan eman daiteke, urnieta.eus/eu/kiroldegia/bazkidetza gunean sartuta. Eraikina berria izateak bazkide ez den herrikide gehiago batzera ekar dezake.



Urnietako Udal igerileku irekia. AIURRI

Igerileku irekia Urnietako igerilekua larunbat honetan zabalduko dute, eta hiru hilabetez egongo da irekita. Orain arteko ordutegi bera izango du: astelehenetik igandera, 10:00etatik 20:30etara. Jada, irekita dago udako bonua erosteko aukera.

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



KOMUNITATEA

JULEN LORENZO ANDOAIN

Autobus zerbitzu duinaren ibilbidea

2021eko uztailaren 1ean hasi zen kaosa, Alsa-Transitiak osatutako Tolosaldea Buruntzaldea Hiriartekoa (TBH) enpresa batuketak irabazi berri zuen Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun departamenduak abiatu zuen emakidaren lehiaketa, eta egun horretan abian jarri zen ordurarte 3 emakida ezberdin izan zirena; TSST, HASA eta Garayar. Ordutegietan (hauek zehaztu eta jartzearen konpetentzia Gipuzkoako Foru Aldundiarena da), aldaketa handiak egin zituzten herriarrian iritzia kontuan hartu gabe eta egun batetik bestera komunikazio falta handiarekin eta erabiltzaileen haserrearekin.

Orduan hasi ziren jendearen kexak eta erreklamazioak: lehen 15 minutuko maiztasuna

zegoela eta orain 30 minutu ingurukoa, bi autobus batera solapatzen zirela ordu berean leku berera joateko, ordutegiak ez zirela beharretara ongi egokitzen...

Herritarren presio eta kexen ondorioz, nahiz eta denbora asko kostatu erreakzionatzen, Andoaingo alkate Maider Lainezek bilera batzuk burutu zituen mugikortasun departamendurekin, nahiz eta, bistan denez, ez zuen ezertxo ere lortu.

Irailerako aldaketak iragarri zituzten eskualdeko herritarren haserrearen ondorioz, baina Andoainen, soilik, BU05 eta BU06 lineetan irteera-orduak aldatu zituzten, nahiz eta BU07 linean 30 minuturoko maiztasuna hitz eman zuten Diputaziotik eta "arazoak konponduko zirela",

esan baina ez zuten hori bete. Herritarren haserreak aurrera jarraitu zuen eta berriz ere presioaren eraginez, alkateak bilera eskatu zuen berriro mugikortasuneko arduradunekin. Baina puntu hori izan da dugun azken berria, ustez berak planteaturiko neurrietan aurrerapausoak ez baitira eman ere egin.

Baina irailean herritarren haserre hain zein handia, nolabait bideratzeko beharra ikusi nuela. Irailetik urtarrilera arte 192 pertsonarekin "elkarriketak" egin nituen zerbitzuaren kexen eta iradokizunen gainean. Horiek entzunda, pare bat alternatiba landu nituen autobus-zerbitzuaren egoera hobetzeko asmoz. Gerora, sinadura-bilketa hasi

zen zenbait komertziotan eta, baita, ondoren autobus-geltokietan ere, guztira 1.056 bildu zirelarik. Hemendik, eskerrak eman autobus-zerbitzu duinaren alde egin zuten guztiei.

Proposamenak eta sinadura-bilketaren berri Andoaingo alderdi guztiei eman zitzaizen, baita Diputazioko Mugikortasun departamenduari ere, otsaila-martxoan. Alkateak bilera eskaera egin zidan horren berri jakiteko, eta, bertan, eta aurrez udaleko beste zenbait alderditako zenbait zinegotzik egin moduan, sinatu egin zuen.

Aurrerago, bilera-eskaera egin nuen mugikortasun zuzendariarekin biltzeko (kexak eta proposamenak helarazteko) eta, hasiera

batean, apirilaren 6an jarri bazen ere, azkenean ekainaren 2an burutu zen. Bilera horren aurreko astean, sorpresaz hartu nuen alkatea eta mugikortasun zuzendariak hobekuntza batzuk iragarri zituztela autobus zerbitzuan Andoainerako (15/20 minuturo busa herriko behealdetik Donostiara, BU07 astean zehar goizetan 30 minuturo...) eta argazkia atera zutela Andoainen, kontuan hartuta herriarrian ahalegin eta insistentzia izan dela neurri horiek hartzearen arrazoia.

Nahiz eta egungo bus-zerbitzuarekin alderatuta hobekuntza bat den, ez dira nahikoa eta lanean jarraituko dut uda ostean, aurrera begira hobekuntza gehiago egin ditzaten autobus-zerbitzuan.



Aiurri eskuragarri:
Ebeiz ebeko harpidetza-sistema.
Andoainen urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da.
Urietan, 32 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalgunetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea.
20140, Andoain.
Tel.: 943 300 732.
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus
@aiurri

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.

Maketatzailea: Maddi Trubuelo.

Kudeaketa, harpidetza:
Garbiñe Ugarte Mendia.
idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu.
publizitatea@aiurri.eus

Banatzailak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, J.Mari Sagaseta (Urietan).

Diseinua: Golena Komunikazio Taldea.

Zorion agurrak, merkatu txikia:
diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus.
Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALIATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



ANDOAINGO UDALA



URIETAKO UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

Hikuntza Berdintasunerako Zuzendaritza

ZIURTAGIRIA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak
ezinbestekoak dira.



Xabier Lasa ANDOAIN

Zein da zuen egitasmoaren helburua?

1936ko uztailaren 18ko kolpe militarrek eraginda, Gipuzkoatik erbestera ihes egin behar izan zuten umeen memoria berreskuratzea. Horretarako, Intxorta 1937 kultur elkarteak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, egitasmoa abian jarri zuen orain bi urte, eta horretan dabil ekinean. Gaia lan-zeko hamahiru lagun taldea sortu dugu: sei pertsona Intxorta taldekoak gara, eta horietaz gain, beste zazpi pertsona gaian esperientzia eta interesa dituztenak dira. Bestalde, eskertzekoa ere bada herri askotan lanean dabilzan elkarte memorialistek eskaini diguten laguntza.

Orain arte, sei mila eta bostehunetik gorako zerrenda osatu dugu. Guzti horiei buruzko makina bat informazio (aipamen hutsak, testigantza pertsonalak, artxiboetako informazioa, agiriak, argazkiak...) jaso ahal izan dugu, baina kontziente gara oraindik ere ez garela guztia jasotzera iritsi, ezta gutxiago ere!

Egitasmoaren amaieran, egindako guztiari zabalkundea emateko edo aitormenezko ekimenik egiteko asmorik ba al duzue?

Printzipioz, 2023ko hasieran aitormen izaera izango duen ekitaldi publikoa antolatuko da Gipuzkoa mailan. Aldi berean, grabatutako elkarrizketa ugari Aldundiaren webgunean zabaltzeko asmoa dago. Ekainaren 15ean prentsa-agerraldia egingo dugu, eta bertan xehetasun guztiak eskainiko ditugu.

Beterri-Buruntzari begira, bulegoa jartzeko asmoa daukazue hurrengo egunetan.

Abian jarritako datu-bilketari eutsita, Gipuzkoan eskualdez eskualde arreta-bulegoak irekitzen ari gara azken aldian, orduko haurrak nahiz edozein eratako informazioa eskaini dezaketen pertsonak hurbil daitezen bertara. Hortaz, eskualdeko herritar guztiei luzatzen diegu gonbitea, edozein moduko datua edukiz gero bertara dadin. Buruntzaldeko herritarren ahalik eta inbentariarik osatuena nahi genuke egin, Gipuzkoako datu-basera batzeko.

Aldi berean, eskerrak eman nahi dizkiegu Udal Artxiboko langileei jarri dizkiguten erraztasunagatik.

"1936ko haurren lekukotza jaso nahi dugu Beterri-Buruntzan"

JUAN RAMON GARAI INTXORTA KULTUR ELKARTEKO ERAGILEA

1936ko Gerran erbesterako bidea hartu behar izan zuten haurren oroimena berreskuratze ahaleginean dabilta, eta Buruntzaldeko herritarrei deia luzatu die



Juan Ramon Garai, ekimeneko sustatzaileetakoa. AIURRI

Noren datuak ari zarete biltzen, herritik ihes egin behar izan zuten haur guztiena, ala, Frantziako estatutara, Ingalaterrara, Errusiara, Ameriketara eta abarretara ihesi joan zireneka?

Zehazki, 1936ko kolpe militarra hasterakoan erbestera ihesean joan ziren 0 eta 16 urte bitarteko ume eta gaztetxoak, eta baita ere, erbesteratzen jaio zirenak 1939 arte. Gerrako haur gehienak Frantzia eta Kataluniara (Valentziara ere bai) joandakoak dira. Halaber, Ingalaterrara, Errusiara eta Belgikara nahiz Ameriketara (Mexiko, Argentina, Txile, Venezuela, Kuba, Errepublikak Dominikarra...) joan zirenak. Egia da badaude la beste ume asko beren herrietatik ihesi joan zirenak, Bizkaia, Santanderrera nahiz Asturiasera, baina ez zuten muga zeharkatu. Ibilbide hori egin zuten haur eta gaztetxoek izenak ez ditugu jasotzen printzipioz. **Orain arte bildu duzuen informazioaren arabera, Buruntzaldeko herrietatik zenbat haurrek egin behar izan zuten ihes, bizitokia utzita?**

Oso zaila da zenbakiak zehaztea, baina ehunka batzuk izan ziren seguruenera. Orain arte jaso

BETERRI-BURUNTZAN DATUAK BILTZEKO GUNEA ANDOAINEN JARRIKO DUTE, UDAL ARTXIBOAN

Datu bilketa ekainean

Eskualdeari dagokionez, Andoainen jarriko dute bulegoa, Udal Artxiboko instalakuntzatan.

Bulegoa zabalik

- Tokia: Udal Artxiboa. Ambrosia Olabide eraikina, San Martin elizaren atzealdean.
- Egunak: Ekainak 16, 21 eta 30.
- Ordutegia: 10:00-12:00 / 18:00-20:00.
- E-posta: intxorta1937@gmail.com.
- Telefonoa: 678 242 031.

ditugun erreferentziak, 276enak dira; 133 emakumeak, 143 gizonak. Hona datuak herriz herri, eta sexuen arabera banatuta: Hernanin 109 (53, 56), Andoainen 75 (32, 43), Lasarte-Orian 62 (37, 25), Astigarragan 15 (3, 12), Urnietan 15 (9, 6), eta azkenik, Usurbilen 1 (emakumea).

Zer nolako harrera egin diote herritarrek informazioa jasotzeko guneari, beste udalerrietan?

Irunen, Eibarren, Soraluzen eta Tolosan irekitako arreta-bulegoak oso lagungarriak egin zaizkigu zerrendak osatzeko, elkarrizketa berriak egiteko, argazkiak eta agiriak jasotzeko... Egia esan, herritarrengana hurbiltzea da gure asmoa eta komunikabideen eskutik lortzen ari garen oihartzuna ezinbestekoa bilakatzen ari da gure egitasmoaren berri zabaltzeko.

Aldi berean, eskertza adierazi nahi diegu Gipuzkoako hainbat memoria elkartei, eskainitako laguntzagatik.

Eduki behar da kontuan gero eta pertsona gutxiago bizi dela kolpe militarren ondorioak zuzen-zuzenean jasan zuena, eta oraindik kontatzeko moduan dagoena. Horietatik, banaka batzuk baino ez dira zapalketa guzti hura adinez heldua izanik sufritu zuena. Gehiago dira umeak zirenak orduan; hain zuzen, azken horiek ari dira animatzen bulegora etortzeko. Alde horretatik, testigantza hunkigarriak eta aberasgarriak jasotzen ari gara.



San Juan suaz gozatzeko aukera izango da, garai batean bezala. AIURRI

Jaiak, garai batean bezala

Berririo salto egitera gonbidatu gaitu San Juan jaietako kartelak, eta hein batean, horixe da 2022ko udarako proposamena: Garai batean bezalaxe suaren gainean salto egiteko, txarangaren atzetik kantari joateko eta, finean, festaz gozatzeko

Erredakzioa ANDOAIN

Ekainaren 23tik 26ra Andoain San Juan jaietan murgilduko da. Datozen egunetan andoaindarrek festen egitarau osoa jasoko dute etxean, eta bertan ikusi ahal izango dute jaiak

garai batean bezala ospatuko direla. San Juan sua, Soka Dantza, pregoia, Axeri Dantza, haur danborrada, erraldoi eta buruhandien konpartsa, zezen-suzkoa... Herrian hain errotuta dauden ekitaldiak biziberrituko

dira. Eta ikuskizunei dagokionez, urte luzez egin bezala, jendetza erakarriko duten programazioa aurkeztu dute. Zetak, Gozategi, Doctor Deseo, Puro Relajo... adin guztietako festazaleak dantzan jartzeko moduko taldeak dira.



ZETAK

Musika eskaintza zabala

Nafarroa plazako kontzertuak: Ekainaren 23an Zetak eta Oihan Vega, ekainaren 24n Dukkha eta Doctor Deseo, ekainaren 25ean Foyone eta Sofia Gabanna, ekainaren 26an Mikel Moreno eta Tremenda Jauria. Goikolazako kontzertuak: Ekainaren 23an Egan, ekainaren 24an Gozategi eta ekainaren 25ean Puro Relajo eta Remember Queen.



SOFIA GABANNA

Ekainaren 23tik 26ra jaiez gozatzeko deia luzatu du Andoaingo Udalak

"Gogo handiz berreskuratzen ditugu herriko jaiak, andoaindarrek asko maite dituzten festak", adierazi zuen Maider Lainez alkateak jaien aurkezpen ekitaldian. Eta erantzukizunaren aldeko deia egin zuen: "Jaiak askatasunez gozatu ahal izatea bermatu behar dugu, ez dugu inolako erasorik onartuko, eta Andoaingo plaza publikoa emakumeentzat bereziki

segurua izan dadin lan egin behar dugu". Txitxu Ruiz Kultura zinegotziak, berriz, horrela definitu zuen aurtengo jaien egitaraua: "Programa erakargarria, anitza eta plurala mimoz diseinatu dugu, andoaindar bakoitzak bere gustuko jarduerak aurki ditzan". Aurtengo txupinazoa botako duen izena eman zuen, bide batez. Maizorri txalaparta taldea izango da. 20 urte bete ditu talde gisa

sortu zenetik, eta antza, hori izan da herritarrek botoa emateko garaian kontutan hartu dutena.

Goi mailako kontzertuak, su artifizialak, buruhandien bilkura... jaien aurrekontuaren xehetasunik ez zuten eman baina handia dela imajinatzea ez da zaila. "Kultur Sailak beti defendatu du sektorearen aldeko apustua egiten jarraitzearen garrantzia", defendatu zen Ruiz zinegotziak.



Maider Lainez alkatea eta Txitxu Ruiz Kultura zinegotzia. AIURRI



CESAR NUÑEZ

San Juan jaietako kartela

Cesar Nuñez izan da irabazlea ("Salta otra vez" izenburukoa), eta Ruben Lucas bigarrena. Ikuslegoaren saria Maider Arabaolazak irabazi du ("Esentziak" izenekoa). 12-16 urte bitartekoen artean, Intza Elordi Orea izan da irabazlea. Lehiaketara aurkeztu diren kartel guztiak Goikoplazako frontoian ikusgai izango dira jaietan.



AIURRI

Trianari omenaldia

Andaluziako kultura zabaltzeko Andoaingo taldeak egin duen ahaleginari eskertza adierazi nahi dio Udalak. Datorren ekainaren 22an San Martin elizako arkupetan taldearen ibilbide oparoa azaltzen duen argazki-erakusketa ikusgai izango da. San Juan jaietako protagonistatokoak ziren iraganean. Argazkia 2018ko Sanjuanetan aterata dago.

Martxan dauden deialdiak



Agustin Leitza elkarteko danborrada, 2017ko San Juan jaietan. AIURRI

Agustin Leitza elkarteko danborrada Elkarteko danborradan izen emateko epea irekia dago. Entsegu egunak: ekainak 9, 14 eta 16an Arrate frontoiko behekaldean. Ordua: 19:00. Entsegu orokorra datorren ekainaren 21ean egingo dute, Agustin Leitza plazan.



Axeri Dantza prestatzeko entseguak, astelehenean. AIURRI

Axeri Dantza, entseguak San Juan jaietako saioak prestatzeko entseguak ekin diete. Ondarreta ikastetxean, elkartuko dira ekainaren 13an, 16an eta 21ean. Ordua: 19:00. 2005ean edo lehenago jaiotakoei zuzenduta dago deialdia.



Zuaznabartarrak Udaletxeko balkoian txalapartari ekiteko prest. AIURRI

San Juan sua, udaletxetik Hamar herritarrek San Juan sua eta ondorengo ekitaldiak udaletxeko balkoitik ikusteko aukera edukiko dute; zozketa bidez erabakiko da. Izena-emateko epea ostiralean amaitzen da. E-posta: basteroataria@andoain.eus.



2018ko Sanjuanak. AIURRI

Erraldoi eta Buruhandien konpartsen bilkura

Topaketa antolatu du Udalak, hainbat herriko kideetako konpartsen parte hartzearekin

Erredakzioa ANDOAIN

Ekainaren 25a, larunbata, Erraldoi eta Buruhandien konpartsen topaketa egingo dute. Lebiton konpartsa kideez gain, Gipuzkoako eta Arabako antzeko taldeak hurbilduko dira Andoaingera. Udalak jaien aurkezpen ekitaldian iragarri zuenez, Amasa-Villabonako, Elgoibarreko, Beasaingo eta Gasteizko erraldoiek parte hartuko dute.



Aiurri.eus. AIURRI

San Juan jaiei buruzko atal berezia Aiurri.eus webgunean

Santa Krutz jaietan egin bezala, San Juan jaiei buruzko informazio osatuena eskaintzen ahalginduko da Aiurriko erredakzio taldea. Agenda atala, jaiekin zerikusia duten albisteak eta argazki-bildumen eta bideoen atala nabarmenduko dira aurtengoan, jaiak garai batean bezala ospatzeko aukera zabaldu denez. Adi, beraz, webgunera.



The Limiñanas frantziar taldeak duela bost urte emanaldi gogoangarria eskaini zuen. Aurtengoan errepikatuko dute. Gauari amaiera emango diote, gainera. AIURRI

Rockzaleen gaua iristear da

Andoain rock doinuen giroan murgilduko da, larunbat osoan. Eguerdian girotzen hasiko da jaialdia herriko zenbait gunetan. Arratsaldeko 18:00tan abiatuko da jaialdi nagusia, Nafarroa plazan. Rock musikaz gozatzeko eguna da

Jon Ander Ubeda ANDOAIN Melenas

Nafarroako hiriburutik Andoainera hurbilduko da Oihana, Leire, Laura eta Maria laukoteak osaturiko taldea. Rock, garaje eta psikodelia doinuak.

The Hanging stars

Cosmicious Country Band, horrela aurkezten dute beren burua. Country musika eta psikodeliaren nahasketa. Dagoeneko, lau disko argitara eman dituzte eta kritikak azken diskoa bereziki nabarmendu du.

-Gailu

Duela urte asko izen artistiko hori hartu zuen Mikel Abregoren *alter ego*-ak. Urteak igaro dira eta egitasmoa biziberritu du, disko berria kaleratuz. Eneko -edo Okene- anaia kantari lanetan dela ariko dira zuzenean.

El Drogas

Ikuslego zabalarentzat artista ezagunena da, zalantza izpirik gabe. Andoainera ikuslego gehiago hurbiltzeko amua ere bada, bide batez. Barricada taldeko baxu-jotzaile zenak bakarkako

ibilbidea sendotu du, eta zuzeneko bikainak eskaintzen dihardu.

Parlor Snakes

Rock eta garaje doinuak, zuzeneko emanaldi bizia osatzeko.

The Limiñanas

"De película" 2021ean argitara eman zuten diskoa aurkeztera datoz. Lagun zaharren modura, rockzaleak talde hau bereziki ikusteko gogoz daude. 2017ko edizioan izan ziren eta txalo zaparrada jaso zuten.



-Gailu taldeak Gernikako Iparragirren eskaini zuen lehen kontzertua. GAILU

-Gailu, Andoaingo ordezkariak

Zuzeneko emanaldiei ekin zien udaberrian Mikel Abregok sustatu duen musika proposamen berriak. Haren ondoan izango dira Okene Abrego kantaria -eta anaia- eta Mariano Hurtado Inoren Ero Ni taldeko baxu-jotzailea.

Ordutegiak Nafarroa plazan

18:00tan Melenas taldearekin abiatuko da jaialdia. 19:05ean The Hanging Stars. 20:10ean, -Gailu. 22:00tan, El Drogas. 23:35ean, Parlor Snakes. Eta, 00:50ean, The Limiñanas.

"Aperitif-a familia-giroan gozatzeko modua da"

OSKAR URIBESALGO ROCK JAIALDIKO APERITIF SAIOETAKO ANTOLATZAILEA
Rock and rolari eusten dioten Euskal Herriko hiru taldeek osatzen dute, urtez-urte, Aperitif Jaialdiko kartela. Luxuzko hiru kontzertu Andoaingo eremu banatan

Xabier Lasa ANDOAIN

Oskar Uribesalgo herriko kultur eragile eta musika zale amorratua arduratzen da Aperitif Jaialdiaz.

Aurtengo hiru taldeen gaineko zenbait datu eskatuko dizkizut. Lehenbizikoa, Ramada Inn, Zumea plazan, 12:00etan.

Oñatiarrak, sortu berria. Beste taldeetan aritu ostean eskarmen handia pilotuta daukaten musikariek osatu dute. Juan Valls da bere abeslaria, oso ahots pertsonala, fina, polita... Taldearen musikak 70eko soinu amerikarraren oihartzuna dakargu; inorekin erreferentzia hartzekotan, Bob Dylan edo Neil Young datozkigu gogora. Urtarrilean hasi nintzen beren musika entzuten, eta harekin kateatuta segitzen dut geroztik, zora-zora eginda. Garate grabazio estudioan lehen diskoa grabatu berritan datoz.

Natural Proyect, Juanita Alkainen, 13:00etan.

Ezagunagoa egingo zaie andoaindarrei, lau kideetatik hiru herrikideak baitira: Estanis Elortza (ahotsa eta baxua), Aitor San Sebastian (bateria) eta Juanpa Valdecantos (teklata eta sintetizadoreak). Eñaut Gaztañaga (gitarra) da formazioko laugarrena. 25 urtetara doa taldearen ibilbidea, eta bost disko bizkarraren. 90eko hamarkadan sortutako taldea da, sintetizadorea eta teklatura rockaren munduan



Oskar Uribesalgo musikaria eta musikazalea da. AIURRI

zabaltzen hasi ziren testuinguru hartan, The Smith, Depeche Mode edo New Order bezalako taldeen garaia iritsi zenean.

Labetik atera berria dute bosgarren diskoa, eta Andoainen aurkeztuko dute; besteak baino psikodelikoagoa eta ilunagoa omen da... Dena delakoa izanda ere, ziurtatuta daukagu ia ordubeteko zuzeneko ikuskizuna taula-gainean zaildua dagoen Estanis abeslariaren eta ondoan izango dituen beste hiru musikari bikainen eskutik.

Eta azkenik, John Dealer & the Coconut Goikoplazan, 14:00etan.

Legazpitik datoz. 2015ean sortua izan arren hiru disko kaleratu

ditu dagoeneko. Harrigarria da bere eboluzio azkarra, eskaileran gora doa koskaz koska etengabe. Ingelesezt kantatu ohi dute, baina euskara sartzen ari dira azken aldian. Kuriositate bezala, taldeko gitarra-jolea, Iñigo Caballero (gitarra), Susana Cenciloren Soinuak eskolako irakaslea izan zen.

Bere estiloa "Rock and roll energiko"aren etiketa pean definitzen dute, eta ez zaie arrazoirik falta, egiazki, zuzeneko indartsu-indartsua baitaukate. Epe ez oso luzera zer esana eman go duen talde horietakoa da; larunbatean Goikoplazara hurbiltzen denak gogoan hartuko

du, eta noizbait, harro esan ahal izango du "han izan zen pribilegiatu horietako bat naiz ni".

Hirugarren edizioa du aurten Aperitif-ak. Zer nolako espirituarekin jaio zen?

Arrazoi ugari aipatuko nituzke. Hasteko eta behin, andoaindarrentzat aukera polita da rock erritmoekin gozatzeko, kalean eta herriko eremu desberdinetan. Larunbatean XIV. Rock Jaialdian datozen rockzaleei ere eragin nahi die, aurreko 13 edizioek gauza bat erakutsi baitigute, zenbaitzuk Andoainera egun-pasa datozela. Bada, horientzat erakargarria izan liteke egurdi partean kateatzea rockaren soinetara. Bestalde, arratsalde- ilunabarrean herrira etortzera ohitu den musika zale horrentzat egun-pasarako gonbidapen pizgarria izan liteke, zergatik ez? Jaialdia hiru eszenatoki desberdinetara sakabanatuz, Andoain luze-zabal ezagutu dezakete, Nafarroa plazara mugatu beharrean.

Azken batean, Aperitive lagungarri gerta daiteke zenbait helburu betetzeko: Andoain rockarekin identifikatzeko, Andoainek musikari lotutako egun osoko kale giroa edukitzeko, herriko ostalaritzak ere bisitarien mugimendua nabaritzeko...

Bestalde, honako gogoeta ere egingo nuke: musikaren munduan gero eta joera handiagoa dago gautik irteten eta egun-argitara eramateko zuzeneko kontzertuak. Ederki eskertzen dugu haurrak dauzkagunok eta gauez nekez atera gaitzekinak! Alde horretatik, Aperitif familia-giroan gozatzeko modua izan daiteke.

Zeu aritzen zara taldeen aukeraketak egiten, zeintzuk dituzu irizpide?

Rock and rollaren esentziari eusten dioten taldeak dute kabira, batez ere. Rockaren pean musika genero asko lotzen dira, baina esango nuke 70eko hamarkadako espiritutik edaten dutenak, soinu nahiko "klasikoak" egiten dutenak.

Urtean zehar inguruko musika panorama gertu-gertutik jarraitzen saiatzen naiz, leku txikietan-eta eta zalaparta mediatiko askorik gabe jotzen dabilen taldeak, sortu berriak, atera berri dituzten diskoak... Kalitate eta etorkizun handiko formazioak izan arren publiko zabalentzat oraindik desku-britzeko daudenak Andoainera ekartzea da nire ilusioa. Erreferentziarik apenas eduki gabe, bilutsik, talde bat zuzenean kontenplatu duzu, eta hor non zoratuta uzten zaituen! Hori baino magia politagorik eragiten ote du musikak?

Hirugarren edizioaren atarian, Aperitif-a errotzen ari den ekimena dela esatera ausartuko zinateke?

Ibilbide laburrekoa izan arren, kontsolidatzen ari dela eta etorkizun oparoa daukala zain, esango nuke. Taldeak pozik hartzen dute eskaintza, formatu txikikoa izanik ez dauka aurrekontu handirik, eta gainera, publiko fidela dauka atzetik (jendea galdezka edukitzen dut urtean zehar, ea nortzuk datozen aurten...).

Garrantzitsua da Salkin elkar-teak ekimena babestea, eta Andoaingo Udalak laguntzea eszenatokiak azpiegiturarekin eta soinuarekin. Alde horretatik, eskertzekoa da merkatarien elkartearen eta Udal kultur teknikarien ahalegina. Aldi berean, ez nituzke ahaztu nahi hiru kontzertuetan edozein zereginetarako prest egoten diren Dani, Sergio eta Koldo.



andoainDARRA
euskaraz



Jaione Jauregi eta Edu Muruamendiaraz. AIURRI

“Egindako lanaren erakustaldia izango da”

JAIONE JAUREGI GARMENDIA, EDU MURUAMENDIARAZ GALLASTEGI EGAPE

Maila handiko dantza eta musika ikuskizuna ikusteko aukera izango da asteburu honetan, Urnietan. Egape eta Korrontzi arteko uztarketa zuzenean ikusi ahal izango da

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Nola iritsi zen Korrontzirekin batera dantzan aritzeko aukera zeuen eskuetara?

Jaione Jauregi Garmendia: 2020. urtean hasitako proposamena da, oker ez banabil, Urnieta Dantzan ekimenaren harira antolatu nahi genuen. Korrontzi

taldeak "Korrontzi dantzan" proiektua dauka; horrela, Euskal Herriko makina bat txokotan barrena aritzen da tokian tokiko dantza-taldeekin elkarlanean kontzertuak antolatzen. Orain bi urte eutsi genion eskaintza horri, baina pandemia etorri zen. Askotariko saiakerak egin

ditugu harrezkero, egoera epidemiologikoa apalduko zelakoan, baina ez da posible izan, gaurdaino. Era berean, Egape Dantza Taldeak dantza asko egiten ditu Korrontziren musikarekin, eta estilo berdineko beste zenbait melodiarekin; beraz, berezia zaigu egitasmoa.

Besteak beste, “Koplariak” diskoa oinarri izango da ikuskizunean.

Edu Muruamendiaraz Gallastegi: Doinu berriak badira ere, betidanik landu ditugu horrelako koreografiak gure taldean. Izan ere, Korrontzik Getxon egindako zuzeneko batean oinarritu gara sarri dantzak egiteko. Orain, beste abesti-sorta batetik abiatu gara. Guztira, 14 koreografia egingo ditugu eta horietatik hamar bat hutsetik sortuak dira.

Koreografiak oholtzara egokitu behar izan ditugu, ez baikaudere bertako neurrietara ohituta. Ondorioz, egitura aldetik, moldatu behar izan dugu, ezin baitira taldekide guztiak batera dantzan aritu. Erronka polita izan da, luzea eta gogorra. Nolanahi ere, emaitza ederra irtingo da, ziur, finean, lehen aldiz egingo du Egape Dantza Taldeak horrelako zerbait musika-talde ezagun batekin. Guztiak gaude eguna iristeko zain. Urduritasuna nabari da.

J.J.G.: Nire ustez, erronka garrantzitsua da, era berean, bai dantzariontzat, bai zuretzat, Edu, zuzeneko musikak exijitzen dituen erritmoei ongi erantzun behar zaielako.

E.M.G.: Ez gaude ohituta zuzeneko musikak ematen duen adrenalina gehigarri horretara. **Korrontzik badu, modu batera edo bestera, Egape Dantza Taldearekin antzekotasunik, tradizioaren eta inertzia berritzaileen arteko nahas-keta egiten baitu.**

E.M.G.: Dudarik gabe. Nor bere diziplinatik, baina egiten dugunak antzekotasun handiak ditu; bada, nolabait, bien artean bide komunik.

Dantzarien adinari dagokionez, anitza da Egape Dantza Taldea.

J.J.G.: Lehen Hezkuntzako seigarren mailatik (hamabi urte, gutxi gorabehera) hasita, 65 urte bitarteko 75 dantzari batuko gara larunbatean, zazpi taldetan banatuta. Multzo bakoitzeko, bizpahiru koreografia dantzatu-ko ditugu. Halaber, talde bakoitzak, gainera, jantzi zehatz bat izango du, urteen poderioz jantzitegi propioa sortu baitugu.

Antolakuntzari dagokionez, aurtan, dantza elkarteak hitzordu honen aldeko apustua egin du, baita ekonomikoki ere. Hala, Udalak zeharkako gastuekin eta baliabideekin lagundu gaitu.

Presentzia handia izango al duzue emanaldian?

Larunbat honetan, Urnietan

"Koplariak" diskoa oinarritzat harturik, 75 dantzarik mugimendua jarriko diete taldearen melodiei. Korrontzi taldeak geldialdia egingo du Urnietan, hilaren 11n, larunbatearekin, Egape Dantza Taldearekin batera oholtza gainera igotzeko. Gaueko 21:00tan hasiko da ikuskizuna, Plazido Muxika plazan. Eguraldi txarrarekin Egape ikastolako jolastoki estalian izango da. Sarrera doakoa da.

E.M.G.: Interpretatuko diren hamazazpi piezetatik hamalautan hartuko dugu parte. Gehienez, hamabost bat dantzari egongo dira taulan, abesti bakoitzeko, adinaren araberrako taldeetan antolatuta. Sorkuntza-prozesua oso polita izan da, batez ere "Plus" taldearekin. Hasiera batean, bertigoz begiratzen zioten proposamenari, baina, ondoren, gogo biziz aritu dira lanean, eta behin eta berriro entseatzen dute.

J.J.G.: 2009. urtean sortu genuen "Plus" taldea, dantza-soka berreskuratzean. Horren ondoren, dantzatzen jarraitzeko gogoz geundela ikusi genuen, eta, horrela, gaur arte. Jende asko igaro da taldetik eta hementxe jarraitzen dugu batzuek. Kideei dagokionez, talde horretan bertan ere askotariko adinetako jendea batzen gara, 35 bat urtetik hasi eta 65era bitarte. Oso talde heterogeneoa da: helduagoak garenoi lotsa handiagoa ematen digu taula gainera igotzeak horrenbesteko ikus-entzuleren aurrean eta talde profesional batekin.

Urduritasuna bai, baina ilusioa ere bai...?

"12 ETA 65 URTE BITARTEKO 75 DANTZARI BATUKO GARA LARUNBATEKO DANTZA EMANALDIAN"

E.M.G.: Dantzari gazteen artean ere motibazioa eragitea espero dut. Pandemia medio, jendaurrean aritzeko dinamika apurtu zaie askori. Aurten, berriro ere martxa hartzen hasi gara, eta horrelako emanaldi batek, nire ustez, bultzada emango die dantzan jarraitzeko.

J.J.G.: 2017. urtean, antzeko formatuko ikuskizuna egin genuen, "Plazara, plazerez", Plazido Muxika plazan. Hantxe ziren urnietar guztiak. Urte osoko lanaren eta ahaleginaren erakustaldia izango da larunbatekoa.

E.M.G.: Espero dugu larunbatekoak ere horrelako arrakasta izatea.

Orain bi asteburu "Urnieta dantzan" jaialdiaren edizio berria egin zenuen. Larunbatean Korrontziarekin batera izango zarete eta, igande, "Egape beti dantzan" ikasturte amaierako ikuskizuna oholtzarako duzue. Pandemia, bada oraindik ere dantzazaleen herrian, ezta?

J.J.G.: Gazte Festetan jendez beteta egon ziren kaleak eta Plazido Muxika plaza.

E.M.G.: Zaletasun handia izan da betidanik, eta jendea gogo handiz dago gauza berriak ikusteko. "Urnieta dantzan"-eko emanaldi nagusiaren ostean, plaza-dantzak egin genituen publikoarekin batera eta, orotara, 150 bat bikotek hartu genuen parte. Oraindik denbora falta da, baina poliki-poliki, bagoaz.

J.J.G.: Igandeko emanaldian, bi pase egingo dira. Lehena sendeentzat eta gertukoentzat izango da, eta, bigarrena, aldiz, herritar eta zale guztientzat. Bada dantzazaleen herrian, baina indartu eta elikatu egin behar da, etengabe. Pandemiaren harira, elkarrekin kide berriak sartzeko eta lekukoa emateko bilera irekia egin genuen, eta oso erantzun ona jaso genuen.

Lan handia egin du Egape dantza taldeak urte hauetan guztietan, baita elkarrekin berak ere, euskal dantza babestu eta bultzatu baitu.

"ZALETASUN HANDIA IZAN DA BETIDANIK, ETA JENDEA GOGO HANDIZ DAGO GAUZA BERRIAK IKUSTEKO"

"Energia eta giro oneko gaua izango da"

AGUS BARANDIARAN KORRONTZI

Herrietako dantza-taldeekin elkarlanean igotzen da sarri oholta gainera Korrontzi. Larunbatean, ekainaren 11n, Urnietan izango da Egape Dantza Taldearekin

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Hilaren 11n izango da Korrontzi Urnietan, Egape Dantza Taldeko kideak lagun eta zuen hamargarren diskoa oinarri, "Koplariak". Ez da lan makala izango hamar lanen ibilbide luzeari eustea.

Ia hogeitaz urte daramagu taula gaine, kontzertu mordoa Euskal Herrian zein bertatik kanpo. Hainbat eta hainbat herrialdetan izan gara gure kultura, euskal kulturaren erakusle izaten eta bide luzea egin dugu dagokoneko. Erdi txantxetan hasi ginen, bere garaian, proiektu txiki bat egiteko asmoz, eta hura, pixkanaka, garatzen joan da. "Koplariak" hamargarren diskoa izan zen, baina hortik aurrera ere atera genuen hamaikagarren lan bat Aita Mari itsasontziaren alde. Horien guztien bilduma egingo dugu larunbatean, Urnietan. Gure kanturik esanguratsuenek laburbilduko dute emanaldia eta horri dantza bertako Egape Dantza Taldeak ipiniko dio, alegia, beraiek hornituko dute dantzaz gure musika. Kontzertu potoloa izango da, dantzari asko daudelako tartean, baita ilusio handia ere.

Garai batean bezala betetzen al dira, egun, plazak trikitixaren melodiekin?

Hasi ginenean, jendeak maite zituen trikitixa, txistua eta tankerako instrumentuak. Garai hartan, erromeri-taldeetan trikitixak indar handia zuen eta Kepa Junkera bezalako erreferenteak zeuden. Alabaina, egia da, nolabait, kaleetan ohikotzat jotzen zirela musika-instrumentu horiek, ez, mespretxuz, alegia, *betiko* gisa. Egun, behar bada, hori aldatu da, eta behar duen tokia hartu dute trikitixak, txistua eta albokak, besteak beste, eta hori oso polita da. Musika herrikoiaren bueltan aritzen dira instrumentu horiek, baina baita bestelako egitasmoetan ere. Finean baliabide asko di-



Agus Barandiaran. KORRONTZI

"GOSEZ ETORTZEN DA JENDEA KONTZERTUETARA, EGARRIZ, ONDO PASATZEKO GOGOZ"

tuzte, erritmo askotan sartzeko gaitasuna baitute. Bizirik dago trikitixa, eta, zorionez, edozein taulatan entzun dezakegu, osatsun dago.

Hortaz, koplazalea izatean jarraitzen al du Euskal Herriak?

Pandemia garaia pixkat bat al dundu denean, oharu gara jendea inoiz baino gogotsuago dagoela. Joan den asteburuan, Laguna de Duero (Valladolid) izan ginen, baita Bastidan ere, euskal eskola publikoen aldeko jaian. Gosez etortzen da jendea kontzertuetara, egarriz, ondo pasatzeko gogoz.

Tradizioari uko egin gabe, inertzia berritzaileak txertatzen dituzue Korrontziaren doinueta. Ia bi hamarkadako ibilbidea aipatu didazu... Zeuon melodiek izan al dute nola-baiteko eraldaketa? Unean uneko testuingurura moldatu al dituzue?

"ECAPE ETA GEURE ARTEKO HARTU-EMANAREN AITORTZA TXIKIA IZANGO DA URNIETAKO SAIOA"

Jakina. Finean, gu ere aldatu gara, ez gara lehengo berdinak. Trikitixa ere aldatzen doa, eta erritmo tradizionalak ditugu oinarrian (fandangoa, arin-arina eta abar), baina horren gainean melodia berriak eraikitzen ditugu. Edozein tradizio bere momentuan ere berritzaile izan zen, ziur asko. Izan ere, trikitixa tradizionala da gurean, baina ez ditu 150 urte baino gehiago Euskal Herrian. Tradizioaren sua mantentzea ongi dago, baina elikatu egin behar da hori, indartsua eta iraunkorra izan dadin garra.

Joan-etorri horretan, "Korrontzi dantzan" sortu zen. Nola gauzatu zenituzten proiektu horren lehen pausuak?

Dantzak asko eman dio Korrontziri. Herrietako dantza taldeek jarri zioten abiapuntua egitas-

moari. Diskoak kaleratzen genbiltzan gu, eta, nolabait, herrietako dantza taldeek gure musikarekin koreografiak, dantzak eta proposamen berriak egiten zituzten. 2009. urtean Oinkari dantza taldearekin hasi ginen, eta, harrezkero, beti izan dugu dantza lagun. Hala, 2015ean ekin genion "Korrontzi dantzan" proiektuari: zergatik ez diegu gure musika koreografiatzen aritzen diren taldeei, dantza horiek ematen, erakusten, eta DVD batean batzen? Horrela egin genuen, irudia eta audio grabatu genituen eta hori izan zen guztia hasiera. Gure emanaldi guztietan dantzariak daude, beraiek dira protagonistak: guk dantzari eman baino, dantzariak eman ziguten guri horren abiapuntua.

Urte mordoxka igaro da jada egitasmoaren sorreratik, eta Euskal Herrian barrena 70 talde baino gehiagorekin izan gara elkarlanean: beren entsegetara joan gara eta koreografiak jorratu ditugu, bai eta zuzeneko emanaldiak ondu ere. Portugalen, Madrilan eta Bartzelonan ere izan gara.

Zer sentitzen duzue dantza talde askoren soinu-banda zaretela ikustean?

Ilusioa, batez ere. Zure etxeko bakartasunean egiten dituzu kantuak, eta, nolabait, ona eta txarraren irizpidea galtzen duzu. Bada, abesti hori norbaitek dantzatzea eta plazaratzea da zure lanak merezi duela ikusteko frogarik onena. Egape Dantza Taldea aspalditik dabil gure erritmoekin lanean, eta hortik hasi zen geure harremana. Edu Muruamendiaraz da bertako koreografiagilea eta sarri hitz egin izan dugu elkarlanean aritzeko aukeraz. Pandemia aurretik hasi ginen hizketan, eta larunbat honetan izango da hitzordua. Geure arteko hartu-emanaren, bataren dantzaren eta bestearen musikaren aitortza txikia izango da.

Zergatik ezin dute galdu urnietarrek eta dantzazaleek larunbateko emanaldia?

Ilusioz beteriko emanaldia izango da, eta urte luzez egon gara ikuskizuna prestatzen. Energia eta giro ona edukiko duen hitzordua izango da, emanaldi potoloa, eta Egape Dantza Taldeak pisua izango du. Energia eta indar handia daramagu bertan eskaintzeko.



Arrizabalaga eta Mendizabal, Zaramagako finalaren ostean. ZARAMAGA

Nora Mendizabal Zaramagan eta Nafarroan txapeldun

Nafarroa Arenan 1.600 ikusleren aurrean Foru Komunitatea Txapelketa irabazi zuen Aldairekin batera

Erredakzioa ANDOAIN

"Denbora luzez ez dut txapelketarik irabazi eta, oraingoan, bi final handi etxeratze aukera eduki dut. Oso pozgarria da", horixe zioen Nora Mendizabalek asteburuko bi partidak amaitu ostean. Nafarroako Foru Komunitatea Txapelketan azken orduan lehiatzera deitu zuten, Amaia Aldairekin bikotea osatzeko. Maddi Barrokal-Itxaso Erasun garaitu zituzten (22-16), Nafarroa Arenan. EHKirola.eus gunean adierazi zutenenez, 1.600 zale elkartu zen bertan. Mugarri berria emakumezkoen kirolean.

Nafarroako finalean eskarmen-tu handiko aurrelaria izan zuen alboan andoaindarrak, Aldai dimarra. Mendizabal segurtasuna erakusten ari da atzeko lerroetan, eta dohain hori ere garrantzia handikoa izan zen Zaramagako txapelketa eskuratzeko garaian. Arrizabalagarekin bikote eginda, Ruiz de Infante eta Gaminde gailendu zituzten (13-22). Zaramagako antolatzaileek zabaldutako oharren arabera, "Arrizabalagak min handia egin zuen sakesari abiadura handia emanetz". Mendizabal atzeko koa droetan seguru aritu zen.



UKE

Ohorezko mailan ariko dira

FUTBOLA Zorionak! Javier Carcedo, Asier Rodríguez, Yelko Orbiso, Ibai García, Barack Martínez, Martín Segurado, Lucas Florido, Aratz Cabanillas, Markel Azkarate, Unai Cambra, Alain Brea, Igor Belaunzarán, Kevin Padura, Iker Aramburu, Telmo Cuervo, Ekai Astiasarán, Oier Arana eta Jon Ugutz Esnaola.



Nerea Arruti. AIURRI

Urrezko Aizkolarien txapela jantzi du Arrutik

HERRI KIROLAK Egundoko balentria lortu zuen Arrutik, orain bost hilabete heldu baitzion aizkorari

Xabier Lasa URNIETA

Nerea Arruti urnietarrak irabazi zuen urrezko aizkolarien emakumezkoen finala, Azpeitiako Izarraitz frontoian jokatu zena. Egundoko balentria lortu zuen, orain bost hilabete heldu baitzion aizkorari. Doain apartak dituela eta kirol berrietara egokitze errastasuna duela erakutsi zuen Azpeitian egin zen herri kirolen jaialdian.

Azpeitiako Emakumezkoen Banakako Aizkolaria txapelketan, Arrutik Nerea Sorondo eta Laiene Pikabea izan zituen aurkari. Hona azken emaitza:

1. Nerea Arruti	05:39
2. Nerea Sorondo	+34
3. Laiene Pikabea	+1:31

"Oso pozik nago"

Nerea Arrutik ETB1eko Olatz Forundia kazetariari adierazi zionez, finaleko lehiari ekin zionean ez zuen pentsatzen gaitutuko zuenik aurreko urtetan txapela jantzi duen Nerea Sorondo. "Gaizki hasi bainaiz. Ez naiz konturatu ere egin zertan ari ziren besteak; nire munduan sartu naiz, eman eta eman. Eta horrela, buelta eman diot hasierako lan kaskarrari, eta orduan ikusi dut, bai, irabaz nezakeela. Kriston ilusioa egin dit garai-penak, oso pozik nago".



Asier Rajado Leitzako helmugan, joan zen asteburuan. GOENAGA

Asier Rajadoren hurrengo erronka Camille Extreme da

MENDI LASTERKETAK Ekainaren 19an Isaba aldean ariko da, Mendi Erronkan bigarren sailkatu ostean

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Asier Rajadok lesiorik izan ez balu zer nolakoa litzateke bere denboraldia? Galderari erantzuna ematea ezinezkoa da honez-kero, baina zer pentsatua ematen du. Denboraldia ohikoa baino laburragoa izango da andoaindarrarentzat, baina egin-dazkoaz pozarren egon daiteke. Maiatzaren 15ean Adarra Trail lasterketan jaun eta jabe izan ondoren, Euskal Herriko Mendi Erronkara begira jarri zen. Aurreko asteburuan izan zen lasterketa, eta bigarren postu bikaina eskuratu zuen.

Mendi Erronkako podiuma:

1. Ugaitz Artola	6:56:49
2. Asier Rajado	7:02:56
3. Jon Ander Zabaleta	7:05:37

67 kilometroko lasterketa zen, 7.200 metroko desnibelarekin. Leitzan hasi eta amaitu zen lasterketa, tartean 1.431 metroko garaiera duen Irumugarrietara igo ondoren.

Hilaren 19an, Camille Extreme

31,6 kilometroko ibilbideak 2.044 metroko desnibel positiboa du. Ezkaurre (2.047 metro) igo eta jaitsi beharko dute.



LEIZARAN

Udaberri txapelketa irabazi dute

ESKUBALOIA Eskubaloiak albiste onen iturri izaten jarraitzen du, kadete mailako taldeak Udaberri txapelketa irabaztea lortu zuelako. Elgoibar taldea garaituta, denboraldi bikaina borobildu du. Markagailua argia zen: Leizaran La Salle Berrozpe 26-11 Astigarraga GYS Elgoibar.



Eneko Uria. AIURRI

Maila handiko Herriartekoa osatu du Andoain herriak

ESKUPILOTA Arraten jokatu zen itzuliko partidari Hernani garaile irten zen berriro

Mikel Arberas ANDOAIN

Joanekoan Hernanik 2-leko abantaila lortu zuen, eta ondorioz, aurtengo Herriartekoan finalaurrekora sailkatzea ez zen batere erraza. Azkenean, Hernanik egingo du aurrera. Andoaindarrak Herriartekotik kanpo gelditu diren arren, txapelketa oparoa jokatu dute; izan ere, urte luze askoren ostean bi kanporaketa gainditu eta hirugarrenean kaleratu dira. Maila handia eta kiroltasuna erakutsi dute lehiaketan.

Salbador-Uria

Lehen partidari, Beñat Salbador eta Eneko Uria aritu ziren. Oro har, partida oso berdindua izan zen, edonork irabaz zezakeen, baina azken txanpan urdinak gehiago izan ziren (19-22). Salbador hasieratik segurtasunarekin ikusi zen eta pilotaka indartsuak eman zituen. Me-

mento batzuetan, Uria sakearekin asmatzen hasi zen, baina aurkariaren defentsa gogorra izan zen.

Beloki-Gaztañaga

Bigarren norgehiagoka, Eneko Belokik eta Julen Gaztañagak jokatu zuten. Belokik ohi bezala, berebiziko maila erakutsi zuen, nahiz eta iragan partidetan baino apur bat, baxuagoa izan (22-13). Gaztañagak ere, oso gustuko dituen trikimailuak erabili zituen lehen koadroetan, aurkaria mendean hartzeko.

Eskudero-Usandizaga

Seniorretan, berriz, ez zuten aukera askorik eduki garaipena eskuratzeko (7-22). Usandizagak mindutako eskuarekin jokatu arren defentsa handia erakutsi zuen; neurri berean, Eskudero-k tanto eder batzuk egin zituen aurrealdean, airez sartuta.

Sagardoaren Txapelketaren final aurrekoak hastear dira

ERREMONTEA Urriza-Zubiri, Goikoetxea V-Barrenetxea IV, Segurola-Azpiroz eta Ansa II-Juanenea sailkatuta

Erredakzioa URNIETA

Datorren astelehenean Sagardoaren txapelketa finalaurrekoetan murgilduko da. Hauexek finalaurrekoak, Galarretan bertan edota ETB1eko "Erremontari" saioan ikusi ahal izango direnak:

- Urriza-Zubiri / Segurola-Azpiroz.
 - Goikoetxea V-Barrenetxea IV / Ansa II-Juanenea.
- Ligaxkan Urrizak eta Zubirik partida guztiak irabazi dituzte. Aurreko asteburuko emaitzak:
- Urriza-Zubiri 30 Ezkurra-Zaldia 21. /
 - Ansa II-Juanenea 30 Segurola-Azpiroz 21.

Eskubaloiko jardunaldi irekiak, datorren astean

Ekainaren 26ra arte Andoaingo Leizaran Eskubaloian izena emateko aukera izango dute. Bestalde, Ekainaren 14 eta 16 an eskubaloia ezagutarazteko jardunaldiak egingo dituzte LH6 mailako neska-mutilei begira. 15:30-17:00 artean, parte hartzeko nahikoa izango da Allurraldera kirol arroparekin azaltzea.



Andoaindarrak sasoiko daudela erakusten ari dira Herriartekoan. AIURRI

Maila handia erakusten ari da Andoain, Herriartekoan

PALA Andoainek itzulian norgehiagoka zailak izango ditu, baina, iragan partidatiko mailari eutsi nahi diote

Erredakzioa ANDOAIN

Ponce-Idadi eta Altuna-Rekalde bikote andoaindarrak bi partidak irabazi zituzten larruzko paletaz eta pala motzean. Aurkari zailak zituzten arren, berebiziko maila erakutsi zuten, tantoz tanto.

Ponce-Idadi bikotea nabarmen gailendu zen Rosa eta Gillen donostiarren aurka, larruzko paletaz (35-23). Ponce gazteak inoiz ez bezala sakatu zuen eta min handia egin zuen. Ibaik ere defentsa sendoa erakutsi zuen eta ofentsibaren bitartez tanto ugari eskuratu zituzten. Lehen minututik aurretik joan ziren markagailuan. Mateo Ponce entrenatzailearen esanetan: "Partida aurretik ez genuen horrelako emaitza onik espero, aurkariak oso onak baitira".

Altuna eta Rekaldek ere garaipena eskuratu zuten, zantzata askoko norgehiagokan (40-29). Altuna lesio batetik zetozen eta

jokatzea erabaki zuen arren, ez zen segurtasunarekin kantxaratu, lesioaren beldurra medio. Bestalde, Rekalde lehen tantotik bikain aritu zen. Sakearekin min handia egin zuen: hasiera batean txokotik sakatuta alde gutxi atera zuten, baina partidaren amaierara aldera zabaletik sakea egin eta asmatu egin zuen. Altunak partidari min zantzu ttipiak eduki zituen arren partida ondo amaitu zuela aitortu zuen. Ponce entrenatzailea zuhurtiaz mintzo da: "Ezin dugu gehiegizko konfiantzarekin joan Donostiara, aurkari handiak baititugu aurrean".

"EZIN DUGU GEHIEGIZKO KONFIANTZA HARTU, AURKARI HANDIAK DITUGU AURREAN"

GALARRETA JAI ALAI | SARRERA 10€

FINALAURREA

Ekainak 13 Astelehena | 18:00etatik aurrera

ERREMONTARI

GOIKOETXEA V · BARRENETXEA IV · ANSA II · JUANENEA · SETIEN

URRIZA · ZUBIRI · SEGUROLA · AZPIROZ

ORIA MENDI

ERREMONTEA BIZIRIK

ORIA MENDI

ORIA MENDI

ORIA MENDI

ORIA MENDI

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 9

ANDOAIN Erakusketa

"Euskadiko urak" argazki-erakusketa ikusgai dago. Urak, ibaiak egoera onean izateak duen garrantziaz kontzientziatu eta sentsibilizatu nahi du.

Ekainaren 16ra bitarte. Goikoplaza.

ANDOAIN Erakusketa

Miguel Balliache artistaren "Bibrak" izeneko erakusketa, azken lau urteetan egindako lanak baliatuta. Margolanak, eskultura eta zeramika.

Uztailaren 2ra arte. Bastero.

URNIETA Kontzertu-sorta

Usurbilgo Zamarte eta Lourdes Iriondo musika-eskolen zuzeneko emanaldia.

18:30, Sarobe.

OSTIRALA 10

ANDOAIN Kontzertua

Easo Abesbatza zuzenean ariko da, Ramon Berazak zuzenduta, Myriam Ulanga piano-jotzaileak lagunduta.

19:00, Bastero. 12 euro.

LARUNBATA 11

URNIETA Irteera

Mendi martxa Buruntzara. Ekologismoa hizpide, jardunaldiak antolatu ditu Jarkik Buruntzaldean, ingurumenaz, kapitalismoaz zein eskualdeko egoeraz hausnartzeko.

11:00, San Juan plaza.



Kontzertuan hainbat musikaririk parte hartuko dute. **AIURRI**

ANDOAIN Emanaldi solidarioa

Hernaniko Ozenki Abesbatza, Doinu Zale musika eskolako kantariak, Gora Kaletxiki Banda eta Urki dantza taldea. GENE elkartearen aldeko kontzertu solidarioa.

Ekainak 11, larunbata. 12:30, Bastero. 3 euro.

ANDOAIN Kontzertu solidarioa

GENE elkartearen aldeko kontzertua. Gora Kaletxiki Banda eta Urki dantza taldearen eskutik.

12:30, Bastero. 3 euro.

ANDOAIN Rock jaialdia

"Aperitiv" saioak eguerdian, eta arratsaldean emanaldi nagusia. 12:00 Ramada Inn Zumea plazam. 13:00 Natural Project Juanita Alkain plazatxoan.

14:00 John Dealer Goikoplazan.

18:00 Melenas, Parlor Snakes, -Gailu, The Hanging Stars, El Drogas eta The Limiñanas Nafarroa plazan.

18:00, Nafarroa plaza. Dohainik.

URNIETA Ikuskizuna

Korrontzi taldea eta Egape dantza taldea elkarrekin ariko dira. Xehetasun guztiak 10-11. orrialdeetako elkarriketa bikoitzean.

19:00, Plazido Muxika plaza.

IGANDEA 12

ANDOAIN Hitzaldia

"Narcis@", antzerkia haur eta gaztetxoentzat. Teknologia berriak eta bereziki horien erabilera ardatz hartutako ikuskizuna. 12:00, Bastero.

ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO**

Sin ti ni puedo
Larunbata, 11.
19:30, 22:00.
Igandea, 12.
19:30.
Astelehena, 13.
19:30, 22:00.

Jurassic World: Dominion

Larunbata, 18.
19:30, 22:00.
Igandea, 19.
19:30.
Astelehena, 20.
19:30, 22:00.



SINOPSIS

**SIN TI NI PUEDO**

Zuzendaria: Chus Gutierrez. **Aktoreak:** Mauricio Ochmann, Maite Perroni, Alfonso Bassave, Pedro Casablanc, Ruben Ochandiano, Elena Irureta, Juan Vera, Jorge Motos... **Herrialdea:** Espainia. **Generoa:** Drama, thrillerra. **Iraupena:** 89 minutu. **Urtea:** 2022.

Intrigaz beteriko filma

David arrakasta handiko enpresaburua da eta bizi-tza aberatsa du Alex mutil-lagunarekin batera, gimnasioko monitore erakargarriarekin. Alexek beti izan nahi izan du aita,

eta sarritan planteatzen du hori lortzeko zein bide jarraitu... Adopzioa? Baina Davidek ez du entzun ere egin nahi. Dena aurrera doa, ezustean, Blanca Daviden arreba agertzen denean.

EUSKARALDIA 2022 ANDOAINEN

Aurkezpen ekitaldia BASTERO KULTURGUNEAN

Ekainak 28, asteartea. 19:00. Zatoz!





Hogar Extremeño elkarte. AIURRI

Hogar Extremeñoren Kultur Astea

Erredakzioa ANDOAIN

Azken txanpan sartu dira.

Ekainak 9, osteguna

17:30 Haur jokoak.

18:30 Txokolate jatea.

Ekainak 10, ostirala

18:00 Urdaiazpiko iberikoa mozteko ikastaroa.

Ekainak 11, larunbata

12:30 GENE elkartearen aldeko kontzertua Basteron: Hernaniko Ozenki Abesbatza, Doinu Zale musika eskolako lau kantari (Mikaela Etxeberria, Loli Barrizas, Amaia Santana eta Irati Jauregi), Gora Kaletxiki Banda eta Urki. Sarrera 3 euro. Aurretik: Delgado, Ernaitza eta Stop. Egun berean: Bastero. Kontzertura azaldu ezin dutenek laguntza emateko, 0 lerroa Kutxabank eta La Caixan.

Ekainak 12, igandea

10:00 Miga lehiaketa.

18:00 Sari banaketa ekitaldia.



Andoaindarra elkarte. AIURRI

Andoaindarra elkartearen danborrada

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaindarra elkarteak deia luzatu die andoaindarrei San Juan jaietan aterako duten danborradan parte har dezaten. Danborrada hilaren 25ean, larunbatarekin iragarrita dago. Arratsaldeko 19:00tan abiatuko da, elkarteak Galardi kalean duen egoitzatik. Entseguak La Salle ikastetxeko jolaslekuan egingo dituzte, honako egunetan: ekainak 13 (astelehena), 15 (asteazkena), 20 (astelehena) eta 22 (asteazkena). Entsegu guztiak 19:00etatik aurrera izango dira. Informazio gehiago nahi izanez gero, 635 558 099 telefonora whatsapp bidaltzeko deia luzatu dute.

2017an, 2018an eta 2019an danborrada egin ahal izan zuten, baina azken bi urteotan pandemia dela-eta ezinezkoa izan zaie. Indarberrituta itzuliko dira, berriro ere kalean aritzeko gogo biziz.



Mikel Perez, Ibone Garcia, Nerea Iparraguirre eta Javier Manzano. GOIBURUGOLF

Elkartasunezko saioa Goiburun

Why not fundazioak antolatuta, joan zen ekainaren 4an elkartasunezko lehiaketa antolatu zen Goiburu Golf klubean. 70 jokalarik parte hartu zuten, eta fundazioak haien ekarpena eskertu du. Fundazioak gaixotasun mentala pairatzen duten pertsonen bizi kalitatea hobetzea du helburu. Argazkian, irabazleak: Mikel Perez, Ibone Garcia, Nerea Iparraguirre eta Javier Manzano.



ITURZAETA

Iturzaeta finalak, Sorabillan

Iturzaeta pala txapelketa herrikoiairen finalak, igande honetan.

17:00 Afari-apustua: Estebe-Iñaki / Agirre-Sagaseta.

17:30 3-4. postuak: Eskudero I-Eskudero II / Imanol-Setien.

18:00 Finala: Elixane-Alaine / Amaia-Edurne.

18:30 Finala: Loidi I-Loidi II / Alkorta-Ponce.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Zorionak Inartxo
Aupa Inartxo, iada urtebete pasa da jaio zinenetik, zorionak eta mila muxe potolo etxekoan partetik txiki, maite zaitugu!!!



ANDOAIN
Ixiar Alkain
Zorionak Ixi!!!
Ixiar Alkainek ekainaren 2an 15 urte beteko ditu. Segi horrela "autentika" bizitzaz disfrutatuz. Muxu potolo bat.

Urte askotarako

www.aiurri.eus Zorion agurrak atalean

Whatsapp bidez: 619 16 35 37

diseinua@aiurri.eus

Arantzibia 4-5, behea Andoain

Telefonoa: 943 300 732

TELEFONO-ZENBAKIAK

OSASUN ALORREKOAK

Andoain: 943 006 670.

Urnieta: 943 006 680.

Osasun Aholkuak: 900 203 050.

MERKATU TXIKIA

MINTZALAGUNA

Andoingo emakume pentsioduna hizkuntza laguntza edo mintz-lagun bila dabil: Gaztelaniaz eta ingelesez / danesez aritzeko. Pertsona irekia, eta jendea ezagutzeko gogoarekin: reflexologist45@yahoo.co.uk

ENPLEGUA

Pertsona euskaldun bat behar dugu Lanbroa Taberna lan egiteko. Interesatuak kontaktuan jarri lanbroataberna1@gmail.com-en edo **659 039 922** telefonora deituta.

Alberto Agirre Abesbatza

Joan zen igandean Alberto Agirre Abesbatzak Donostiako alde zaharreko San Vicente elizan abesteko gonbitea jaso zuen. Emanaldia eguerdiko 12:30ean izan zen. Ramon Berazak zuzendu zuen eta organoa joz abesbatzako zuzendari den Joxan Pascual aritu zen. Argazkian hainbat taldekide elizaren kanpoaldean ateratako argazkian.



ALBERTO AGIRRE



Urnieta
udala



Berexi Art. KRONIKA

Berdintasuna ardatz duen murala, auzolanean

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo Udaleko Berdintasun Sailak “Harremonak” egitasmoa bideratzen ari da, Arremanitz Kooperatibarekin batera. Lehen hitzordua ostegun honetan ipini dute, Arraten. Mural parte hartzailea egin nahi dute, eta horretarako Andoaingo 14-16 urteko gazteen parte hartzea eskatu dute. Berdintasun sailak adierazi duenez, “Bi saio prestatu ditugu. Lehenengoa ostegun honetan izango da, ekainak 9, 17:00etatik 19:00etara Arraten. Bertan muralaren diseinua zehaztuko dugu “BerexiArt” sortzaile eta diseinatzailearekin batera. Bigarren saioa ekainaren 18an izango da, eta murala margotzen jardungo dugu egun osoan zehar”. Andoaingo gazteak gonbidatuta daude ekimenean parte hartzera. Ez da izena eman behar eta doakoa da.



Olano Ahaldu Nagusia, Lainez alkatea eta Asensio Foru Diputatu. ALDUNDIA

Ahaldun Nagusiaren bisitaldia Andoainera

Markel Olano Gipuzkoako Ahaldun Nagusia Andoainen izan zen astelehen eguerdian, lurraldean garatzen ari diren etorkizuneko proiektu nagusiak ezagutzera emateko asmoz. Maider Lainez alkatearekin elkartu zen, eta baita Asensio Diputatuarekin ere

Erredakzioa ANDOAIN

Etorkizuna eraikiz ekimenaren baitan, Markel Olano diputatu nagusiak azaldu zuen ezinbestekoa dela gipuzkoarrei entzutea eta gizartearen beharrak, iritziak eta proposamenak jasotzea. Ildo berean, Maider Lainez alkateak nabarmendu zuen herritarren eta erakundearen arteko entzute aktiboa eta bi norabideko ha-

rremana ezinbestekoa eta funtsezkoa dela, aurrera egiteko eta haien kezak ezagutzeko.

Diputatu nagusiaren iritziz, Etorkizuna Eraikiz programari esker, “Gipuzkoaren etorkizuneko erronkei erantzuteko asmoz, herritarrek aurkeztutako 125 proiektu bultzatu ditugu; halaber, 32 proiektu esperimental daude martxan eta bederatzi

erreferentzia-zentro garatu ditugu erronka sozial eta ekonomiko guztietan eragiteko”.

Olano Lainez alkatearekin elkartu zen, eta bilkurara batu zen Asensio Ingurumen diputatua. Olanok adierazi zuenez, “lurralde aurreratua, solidarioa eta kohesionatua gara, pertsona guztiei enplegua, babesa eta etorkizuna eskaintzen diena”.



Artxiboko irudia. AIURRI

Mendi irteera igandean, Juankar Alberdi gogoan

Erredakzioa URNIETA

1988ko ekainaren 15ean hil zen Juankar Alberdi Martirena urnietarra Herrera de la Mancha (Ciudad Real) espetxean. Bihotzekoak jota hil zen, eta betidanik salatu izan dutenez asistentzia ezaren ondorioz izan zen. Urtero legez, hura omentzeko ekitaldia antolatu dute.

Mendi-irteera, igande honetan

Igandean 07:00tan San Juan plazatik abiatuko dira Adarra, Onddi, Buruntza eta Santa Barbara zeharkatzeko. Ondoren, bazkaria egingo dute San Joan plazan. Izen-ematea ekainaren 10ean bukatzen da, Matxo edo Kantoi tabernetan.

Horrez gain, bere heriotzaren 34. urteurrena den ekainaren 15ean, omenaldi ekitaldia egingo dute arratsaldeko 19:30ean hasita, San Juan plazan.



ASKE MAITE ASKE BIZI! bertako
igogailuak | ascensores

www.bertako.eus GIPUZKOA 943 903 450